

GETXO GINKANA

Parte hartzeko oinarriak

1.- XEDEA

Jardueraren antolaketaren xedea Getxoko eta beste udalerri batzuetako herritarrentzat jarduera dibertigarri, ludiko eta dinamikoa (eta ez sedentarioa) sustatzea da. Era berean, udalerriko establezimenduak eta bertako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu eskaintza ezagutzeko bide eman nahi dugu.

2.- PARTE HARTZEA

Nahi duen orok parte hartu ahal du ginkanan, baldin eta adinez nagusi bada edo, adinez nagusi ez bada, heldu batekin badator.

Parte hartzea banakakoa edo taldekkoa izan daiteke. Ginkana egitean positiboki baloratuko da mozorrotuta egotea. Pertsona-talde bakoitza parte hartzaile bakarra izango da.

Parte hartzean, baliteke Internet, GPS, whatsapp, SMS edo e-maila erabili behar izatea; beraz, nahitaezkoa da sakelako telefonoa edukitzea, eta gomendagarria da mezularitza programak eta Interneteko sarbidea erabiltzen jakitea.

3.- IZENA EMATEA

Proiektuan izena ematea dohainik da eta honela egin daiteke:

.- www.getxoenpresa.com webgunearen bidez. Bide honetatik izena emateko gehieneko epea jarduera hasi aurreko eguna da.

.- Helbide elektroniko honen bidez: streetmarketing@getxoenpresa.com. Bide honetatik izena emateko gehieneko epea jarduera hasi aurreko eguna da.

.- SMS mezu baten bidez, whatsapp bidez edo dei baten bidez, telefono honetan: +34 639 137 109. Kasu honetan, probak hasten diren unera arteko epea egongo da izena emateko.

Izena emateko, datu hauek behar dira: izena, adina, banakako edo taldeko parte hartzailea den (pertsona kopurua adieraziz), proba egitean antolatzaileekin zein telefono zenbakitatik egongo den kontaktuan; parte hartzea hasiko duten eguna eta ordua; eta antolatzaileekin nola izan nahi duten harremana (SMS, whatsapp, telefono deia edo e-maila –azken hori ez da gomendatzen, probak ondo egitea eragotz dezakeelako–).

Adinez nagusia ez izatea eta lagunduta ez parte hartzea, edo eskatutako daturen bat ez ematea izen ematea ez onartzeko kausa izan daitezke.

4.- GARAPENA

“Getxo Ginkanak” 4 ginkana hartzen ditu barnean, denak independenteak eta tematikoak. Horrek esan nahi du pertsonen haietako batean bakarrik edo laueta eman ahalko dutela izena; parte hartzaile bakoitzeko izen emate bat egin beharko da parte hartzen duten edizioetako bakoitzean.

Egin nahi diren edizioak eta 4 ginkanen tematika hauxe da:

- Urriaren 28 eta 29ean. “UDAZKENA”.
- Azaroaren 25 eta 26an. “BLACK FRIDAY”.
- Abenduaren 16 eta 17an. “GABONAK”.
- Otsailaren 24 eta 25ean. “INAUTERIAK”.

Lau edizioetatik bakoitzak 2 eguneko iraupena dauka: ostirala (17:00 – 20:00) eta larunbata (10:30 – 13:30), antolatzaileek ezarritako datetan. Parte hartzaileek probak bi egunetan egin ditzakete, nahi badute, denbora ez baita kontuan izango puntuazioan.

4.1. Ginkana bakoitzaren dinamika

Izena eman duen pertsona bakoitzak parte hartzeko adierazi dituen egunean eta orduan, antolatzaileak berak eskatutako bitartekoaren bidez bidaliko dio probak egiten hasi ahal izateko pistetako lehena.

Pistetako bakoitzak parte hartzaileak proiektuan parte hartzen duten udalerriko enpresetako batera eramango ditu. Honelakoak izan daitezke:

- Pista “literarioak”
- Hieroglifikoak
- GPS koordenatuak
- Zuzeneko pistak
- Argazki-pistak.
- ... antolatzaileek asmatzen dituzten bestelako pistak.

Pista horiek lortzeko, parte hartzaileek antolatzaileen jarraibideak bete beharko dituzte. Kasu batzuetan:

- Galdera batzuei erantzun beharko diete.
- Enpresetako langileekin aritu beharko dira.
- Establezimenduan ezkutatutako pista bat aurkitu beharko dute.
- Argazkiren bat bidali beharko dute.
- ... antolatzaileek asmatzen dituzten bestelako probak gainditu.

Parte hartzaileek ez badakite pistetako batzuk jarraitzen edo konponbidea aurkitzen, antolatzaileekin harremanetan jarri ahalko dira, laguntza eskatzeko. Antolatzaileek ez die erantzungo azken deitik gutxienez 30 minutu ez badira igaro.

Antolatzaileek ikusten badute eskaera horiek zentzurik edo logikarik gabe gertatzen direla, parte hartzaileetako edozein kanporatzea erabaki ahalko dute.

Ginkana amaitzean, parte hartzaileek antolatzaileei jakinaraziko diete, azken pistan dauden jarraibideak betetz. Besteak beste:

- Frogatu beharko dute azken pista aurkitu dutela.
- Produktu edo zerbitzuren bat eskuratu baldin badute, datu hauek aurkeztu beharko dituzte egindako erosketa bakoitzeko: establezimendua, tiket edo faktura zenbakia, data eta zenbatekoa.

Parte hartzaile batek azken establezimendura iritsi baino lehen joko amaitutzat ematen badu, antolatzaileei hala jakinarazi beharko die:

- Erantzuna aurkitu zaion azken pista frogatuz.

- Produktu edo zerbitzuren bat eskuratu baldin badute, datu hauek aurkeztu beharko dituzte egindako erosketa bakoitzeko: establezimendua, tiket edo faktura zenbakia, data eta zenbatekoa.

Ginkana bakoitza egitean kontuan izan behar diren gauzak

Establezimendu batetik bestera joan ahal izateko, parte hartzaileak nola joan aukeratu ahalko du: oinez, bizikletaz, autoz, garraio publikoz... Antolatzaileak inola ere ez dira izango parte hartzaile bakoitzak horretan izaten dituen gastuen erantzule.

Antolatzaileek probak egiteko modua zati batean edo goitik behera aldatzeko eskubidea daukate, baldin eta probaren inguruabarrek hala eskatzen badute; era berean, antolatzaileek jarduera bertan behera uzteko eskubidea daukate, baldin eta parte hartzaile guztiei gutxienez hogeita lau ordu lehenago jakinarazten badiete.

Parte hartzaile bakoitzak antolatzaileei ginkanan parte hartzean bidaltzen dizkien irudiak Getxo Enpresaren jabetza izango dira. Era berean, Getxo Enpresak probetan, eta proben ondoren, argazki eta irudien eskubidea eta jabetza eskuratuko ditu, guztiak egoki deritzon moduan erabili eta banatu ahal izateko.

5.- IRABAZLEAK

Ginkanetako bakoitzean 8 irabazle izango dira, lortzen dituzten puntu guztien arabera; beraz, proiektuan guztira 32 garaile izango dira. Irabazleak nortzuk diren zehazteko irizpideak hauek izango dira:

- Mozorroa (janzten duenari): gutxienez 10 puntu emango zaizkio eta gehienez 20, epaimahaiaren irizpidearen arabera, ginkana bakoitzeko gaia kontuan izanik.
- Egondako establezimendu kopurua: 2 puntu haietako bakoitzeko.
- Erosketa egin den establezimendu kopurua: 10 puntu erosketaren bat egin den establezimendu bakoitzeko.
- Erosketaren zenbateko osoa: puntu 1 erosketako 5 euro bakoitzeko.
- Denbora: ez da kontuan izango eta, beraz, ez da puntuatuko. Izan ere, parte hartzaileek proiektuaz goza dezatela da asmoa. Beraz, probak egiteko dagoen denbora osoa eman dezakete horiek egiten.
- Pista aurreratuak: antolatzaileei laguntza eskatzen dioten bakoitzean puntu 1 galduko dute.

Berdinketa baldin badago, berdinketa hausteko irizpideak hauek izango dira, ordena honetan:

- Gehien gastatu duena.
- Establezimendu gehienetan erosi duena.
- Establezimendu gehienetara joan dena.
- Pista gutxien eskatu dituen.
- Mozorroan puntuaziorik onena eskuratu duena.

Gogorarazten dugu taldeak parte hartzaile bakar bat bezala zenbatzen direla.

6.- SARIAK

Ondoko sari hauek ezartzen dira lau ginkanetako bakoitzean sailkapenik onena jasotzen duten 8 parte hartzaileentzat, honela:

Lehenengoa eta bigarrena: 100 euroko opari-txartela, "Getxo Ginkana"n parte hartzen duten establezimenduetan trukatzeko.

Hirugarrena eta laugarrena: bi lagunentzako piragua-irteera, Errioxan (www.riojaalavesaturismo.com) edo Getxon (www.getxoport.com), aukeran.

Bosgarrena eta seigarrena: arku-tiroko jarduera 2 lagunentzat, Errioxan (www.riojaalavesaturismo.com) edo Getxon (www.getxoport.com), aukeran.

Zazpigarrena eta zortzigarrena: Cazaventurero-ko bi ardo botila (bata gaztea eta bestea ondua, Errioa jatorri-deiturarekin)

7.- EPAIMAHAIA

Epaimahaia zenbait adituk, honelako proiektuak egiten esperientzia luzea dutenek, osatzen dute. Epaimahaiak, proba guztiak puntuatzeaz gain, probak egitean sor litezkeen erreklamazio edo zor guztiak ebatziko ditu. Nolanahi ere, epaimahaiaren epaitzari ezin izango zaio apelaziorik egin.

8.- PARTE HARTZEN DUTEN ENPRESAK

Ginkanaren edizioetako bakoitzean, udalerriko enpresa izango dira protagonista. Zirkuitua eta probak enpresan egiterakoan, parte hartzaileek aldi bakoitzerako ezarritako ibilbidea egin beharko dute eta horretarako ezarritako probak bete. "Getxo Ginkana"n parte hartzen duten enpresen zerrenda www.getxoenpresa.com webgunean dago. Enpresa horiek kartel batekin identifikatzen dira, proiektuaren irudia edukiko duena, eta ekimenarekin zerikusia daukan establezimendu bakoitzaren kanpotik ikusi ahal izango dena.

9.- ADOSTASUNA

"Getxo Ginkanaren" edizioetako bakoitzean izena emateak parte hartzearen oinarri hauek osorik onartzea ekarriko du.

Oinarri hauetan ezarri ez diren kontuei buruz antolatzaileek erabakiko dute.